

BAKE KONFERENTZIA. Madrilgo Batzordea aurkeztu du Elkarri-k

Hogei pertsona ezagunek bat egin dute Elkarri-ren bake konferentziarekin Madrilen

«Aurrez baldintzarik gabeko» elkarrizketaren alde agertu dira

Agentziak | MADRIL

Bake konferentziaren alde Madrilgo Batzordea aurkeztu zuen atzo Elkarri-k Espainiako hiriburuan. Batzordea hogei pertsona ezagunek osatzen dute; kazetari, idazle, politikari eta irakasleek, besteak beste.

Iragan urrian hasi eta martxoan amaituko den Elkarri-ren bake konferentziari babesa emateko sortu diren batzordeetatik laugarrena da Madrilgoa. Aurretik Europakoa, Kataluniakoa eta Oherezko Batzordeak osatu ziren. Taldearen aurkezpenean Jonan Fernandez eta Victor Aierdi Elkarri-ko koordinatzaileak izan ziren atzo.

Batzorde berriko kideek sinatutako adierazpena irakurri zuen Enrique Curiel irakasleak aurkezpenean. Euskal Herrian dagoen «indarkeria egoeragatik» kezkatutik azaldu dira sinatzaileak bertan, «alde guztietatik gaitzesgarria izateaz gain, balio demokratikoak higatzen

DATUA

Hogei pertsona ezagun

- Joaquin Leguina, PSOE.
- Javier Tusell, historialaria.
- Iñaki Gabilondo, Maria Antonia Iglesias, Javier Ortiz eta Fernando Lopez Agudin kazetariak.
- S. Carrillo eta M. Camacho, PCE eta CCOOko idazkari nagusi ohiak.
- M. Carmena, magistratua.
- R. Saez, CGPJeko bokala.
- Carlos Taibo, Miguel Herrero de Miñon eta Enrique Curiel irakasleak.
- J. L. Sanpedro, idazlea.
- A. Schommer, argazkilaria.
- Javier Sadaba, filosofoa.
- Maximo, marrazkilaria.
- Angel Garcia Rodriguez, (Bakearen Mezulariak).
- Fernando Mariño, (Giza Eskubideen aldeko Elkartea).
- Joaquin Ruiz-Gimenez, Espainiako Herri Defendatzaile ohi.

ditu, eta gerora egonkortasun demokratikoarentzat oso txarra izan daiteke».

Neurri polizial eta judizialak

Curielek nabarmendu zuenez, «Euskal Herrian dagoen indarkeria ezin da amaitu neurri polizial eta judizialekin bakarrik, eraginkorrak eta egokiak izan da ere».

Bakera eramango duten bide guztiak aztertzearen alde eta indarkeria amaitzeko elkarrizketa eta negoziazioaren alde azaldu dira sinatzaileak: «Aurretik baldintzarik jarri gabe eta aurretik zehaztutako helbururik gabe». Elkarrizketa indar politikoei, sozialei eta instituzioei bultzatu behar dutela uste dute, eta gehienek onartutako balio demokratikoetan oinarritu behar dela deritzote.

Elkarriren ustez, «batzordea ekarpen ona da bake prozesuari begira Madril eta Euskal Herriaren arteko ulermena eta komunikazioa hobetzeko».

LABURAREN



DAVID AGUILAR / EFE
Argantzongo eta Trebiñoko alkateak, Ramon Rabanerarekin.

Trebiño Araban sartzeko «aurrerapauso politikoak» emateko eskatu diote konderriko alkateek Rabanerari

Trebiñoren eta Arabaren arteko harreman administratiboak sakontzeko akordio bat izenpetu zuten atzo Trebiñoko Konderriko alkate Juan Carlos Aguilok (Trebiño) eta Alfredo Oraak (Argantzun) eta Ramon Rabanera Arabako ahaldu nagusiak. Alkateak pozik azaldu ziren akordioarekin, baina «aurrerapauso politikoak» emateko eskatu zioten, Trebiño Araban sartzeko eskaeraren ildotik. Oraak beharrezkotzat jo zuen «lehenbailehen» erreferendumerako eguna jartzea.

Bixente Goikoetxea Fresnestik Bois D'Arcy kartzelara eraman dute, zigor ziegan izan ostean

Bixente Goikoetxea euskal preso atzo Fresnesko espetxetik Bois D'Arcyra eraman zuten, Fresnesen 45 egunez zigor ziegan egon ondoren. Senideak-Gureak elkarteak Goikoetxeak jasandako «egoera gogorra» eta kartzela horretako «erregimen militarra eta bizi-baldintza gogorrak» salatu zituen. Fresnesen euskal presorik berriz ez sartzeko eskatu zuen.

Agurtzane Ezkerra Martuteneko espetxera eraman dute agiri medikoa jaso ondoren

Agurtzane Ezkerra euskal preso atzo eraman zuten Donostiako Onkologikotik Martuteneko espetxera, agiri medikoa jaso ondoren. Ezkerrak bularreko minbizia du, eta azaroaren 20tik Onkologikotik izan da. Han antibiotikoen bidez tratamendua jarri zioten, aurretik hartutako kimioterapia saioa ez zuelako ondo onartu. Aske uzteko eskatu du Senideak-Gureak-ek.

Felipe Anova euskal preso aske geratu da

Felipe Anoval euskal preso aske atera zen atzo 09:30ean Martuteneko espetxetik. Hamabost lagun eta senideek harreman egin zioten kartzela aurrean. Anova 2000ko abenduaren 13an atxilotu zuen Espainiako Poliziak. Aurretik, 1997an atxilotu zuen Ertzaintzak, Iker Bea eta Jon Gibelalderekin batera. 1998ko martxoa arte Alcalá Meco espetxean egon zen preso. Iaz hirurak epaitu zituzten, eta fiskalak eta defentsak akordioa iritsi zuten. Fiskala hiru gazteak ez kartzelatzearen alde agertu bazen ere, preso sartu zuten iazko abenduan. Toloan abenduaren 5ean omenaldia egingo zaie hiru gazteei.

Olano atxilotuko dutela ziur dagoela azaldu du Morenesek

Pedro Morenes Espainiako Segurtasunerako estatu idazkaria eta Patrice Bergounoux Frantziako Polizia Nazionalaren zuzendaria elkartu ziren atzo. Juan Mari Olano AABetako koordinatzailea atxilotuko dutela ziur dela azaldu zuen Morenesek. Frantziaren eta Espainiaren elkarlana «eredugarria» dela esan zuen.

Bigarren aldiz, ertzain baten aurkako epaiketa atzeratu da Donostian

1997an Donostian izandako istiluetan zauriak egiteaz akusatutako ertzain baten aurkako epaiketa atzeratu zen atzo Donostiako Auzitegian, bigarren aldiz. Bi magistratu gaixo-agiria hartuta daudelako atzeratu zen eta apirilaren 10ean izango da. Istiluetan gazte bat gomazko pilotak jo zuen eta behazuna kendu zioten.

ELKARRETARATZEA. «Inplikatzeko» eskatu diote Iñaki Azkuna alkateari



JOSU ETXEBARRIOSTE

Zigorraren 3/4ak beteak dituzten Bilboko presoek alde

Batasunak eta 7ak Askatu plataformak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo Bilboko Justizia Jauregiaren aurrean, zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten presoak askatzearen alde. Lander Etxebarria Batasuneko bozeramaileak salatu zuen presoak «xantaia politikoaren bitartez» behartzen dituztela kartzelatan jarraituz. Era bere-

an, sakabanaketaren «ondorio lazgarriak» ere aipatu zituen, «halako neurriek kalean egon behar luketen presoek egoera jasangaitz bilakatzen dutelako». Halaber, Iñaki Azkuna Bilboko alkateari idatzi bat ere eman zioten atzo; «pertsone horiek askatasuna eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko» inplikatzeko eskatu zioten bertan.